



**“Gipuzkoako Eskulangintza Sektorea Sustatzeko Plana 2020”**  
**ESKULANGINTZAKO LANTEGIAK**  
**ORDAINKETA – LIKIDAZIOA PROZEDURAREN XEHETASUNAK**  
**2020ko AURREKONTUA**

**1. Proiektuen gauzatze data.**

Pertsona eta enpresa onuradunek **2021ko otsailaren 26rako** amaituta izan beharko dituzte dirulaguntza jaso duten proiektuak.

**2. Amaiturik dauden egitasmoak ondokoa bete behar dute:**

- Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete izana zuritzen duen jarduera memoria.
- EGITASMOAREN AMAIERA EGIAZTAGIRIA osatu, dirulaguntzaren % 100eko kitapena eskatuz (1 ERANSKINA).
- BESTELAKO LAGUNTZEN AITORPENA agiria osatu (2 ERANSKINA).
- Excel orria bete: gauzatutako Gastuaren Zehaztapena (3 ERANSKINA).
- ARDURAPEKO ADIERAZPENA (4. eranskina).
- Fakturak edo fotokopia konpultsatuak.
- Ordainketen frogagiriak.
- Proiektuan zehar sortutako dokumentazioa atxiki.

**3. Enpresa onuradunek ekipo ondasunen hornikuntzetan edo aholkularitza nahiz laguntza teknikoko enpresen zerbitzuetan 15.000 euro edo hortik gorako gastu subentzionagarriak egin badituzte, eskatutako hiru eskaintzen artean egindako hautaketa egiaztatzen duen agiria, non eta laguntzaren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahikoa enpresa edo profesional ez dagoenean edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin ez den.**

**4. Enpresaren betebeharrak fiskalen egiaztatzea GFAko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurune Departamentuaren esku geratu zen, horretarako baimena eman baitzion enpresak eskabide agiria luzatzean. Beraz, egiaztatze lan hauek GFAko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurune Departamentuak kudeatuko ditu zuzenean, hala behar izan ezkerro.**

**5. Enpresek, dokumentazioa **egoitza elektronikoa****

(<https://egoitza.gipuzkoa.eus/WAS/CORP/WATTramiteakWEB/inicio.do?idioma=C&app=00001>)

bidez aurkeztu behar dute.

Pertsona fisikoek dokumentazioa 3 bide hauetako baten bitartez aurkez dezakete:

**1. Egoitza elektronikoa bidez**

(<https://egoitza.gipuzkoa.eus/WAS/CORP/WATTramiteakWEB/inicio.do?idioma=C&app=00001>)

**2. Gutun Ziurtatu bidez (Carta Certificada), Erregistro – zigilua dokumentuan duela.**

**3. Bere bulegoetan edo GFArekin itundutako bulegoetan fisikoki.**

Norentzat:

**Gipuzkoako Foru Aldundia**

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurune Departamentua

Ekonomia Sustapeneko Zerbitzua – ARTISAUTZA

Gipuzkoa Plaza, z.g. 20004 DONOSTIA